



# Kakalardo adarduna

## *Lucanus cervus*

### TAMAINA

De 3 à 9 zm

### ITXURA

Arrak oso buru handia du, eta bere barailek «orein-egurren» itxura dute.

Emeak aldiz baraila txiki-txikiak ditu, eta burua arrarena baino askoz txikiagoa du. Arrarekiko, «orein eme» izena du.

Arra >

< Emea

## NOLA IDENTIFIKATU?



### NOIZ?

- > Larba: urte osoan zehar
- > Heldua: ekain eta uztailean

### NON?

- > Hildako egurrean
- > Zuhaitz zaharretan
- > Hostozabal oihan zaharretan
- > Oihan buruan



Emeak Arkanbele txikiarekin nahas daitezke.

## AURKEZPENA

### BIZI ESPERANTZA

4-5 urte

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Larbak hildako egurra jaten dute. Helduek ez dute elikatu beharrik.

Arrak ez dira oso diskretuak. Harrapari askorentzat harrapakinak dira oso poliki ibiltzen eta hegaldatzen baitira.

Ernaldu aitzin, emea zuhaitzetan egoten da, borrokan ari diren arra metatzeak sortuz. Ernaldu ondotik, emeak motzondo propio batean erruten du. Larba, usteltzen ari diren hostozabal zuhaitzen egurrean bizi da.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Kakalardo hau ez da distantzia luzeak egiteko gai, horregatik nahiko arraroa da. Bestalde, egur hilaz gain, eguzkia eta hezetasuna behar ditu ere bai.

Espeziearen garapen motelak eta oihanen mantentze-lan erregularrek bere iraunkortasuna arriskuan jartzen dute. Gainera, habitataren aldaketa handiak, batez ere hesien eta landa-zuhaitzen desagertzeak, kakalardo adardunen desagertzea ekarri du lekuka.

Horregatik, zuhaitz zaharrak mantentzea eta dentsitate egokia atxikitzen laguntzen duen baso-antolamendua dira epe luzera espeziearen biziraupena bermatzeko bide bakarra.